

Mahai - ingurua

Komunikabideak

(Round table: The mass media)

Bingen Amadoz, Euskadi Irratia; Iñaki Azkona, Nafarroako Gobernua; Joxemiel Bidador, Eusko Ikaskuntza; Mikel Bujanda, Euskalerria Irratia; Xabier Erize, Eusko Ikaskuntza; Reyes Ilintxeta, Ze berri? aldizkaria; José Luis Mendoza, Euskara Kultur Elkargoa; José M^a Rodríguez Ochoa, Nafarroako Gobernua

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 65-72]

N

afarroan euskaraz aritzen diren komunikabideetako langileen eskutik, euskarazko prentsa, irratia eta telebistaren bila-kaera, indarrean dagoen legediko xedapenak, eta etorkizuna aztertu ditugu, besteak beste, laugarren mahai-inguru honetan.

Giltza hitzak: Euskara. Nafarroa. Prentsa. Irratia. Telebista.

D

edicamos la cuarta mesa redonda a los medios de comunicación de Navarra que desarrollan su actividad en euskera, analizando, entre otros aspectos, su evolución social, las disposiciones normativas aplicables y los retos futuros.

Palabras clave: Euskera. Navarra. Prensa. Radio. Televisión.

a

u cours de cette table ronde, nous analysons la situation des moyens de communication de Navarre qui développent leur activité en euskera, spécifiquement la radio, la télévision et la presse.

Mots clés: Langue basque. Navarre. Presse. Radio. Télévision.

Bingen Amadoz: *Euskadi Irrati Telebista*-ren kasuan, eta *Euskalerrria Irratia*-n ere nik uste antzeko zer bait gertatzen dela, gauzak isilean egin behar izan dira, eta horrela segitzen dute: nahiko isilean egiten da dena, beldur handiarekin, bada ez bada, eta guk geuk, barnekook, ez dakigu gauza handirik. Hori dena nola zabaltzen den eta gaur egun ze bitarteko dauden... hori goi agintaritzaren eskuetan dago eta beraiek jakingo dute nola egiten duten, besteok ez baitakigu zehazki ze bide ditugun une honetan irrati zein telebistan zabaltzeko.



Eduardo Aldasoro, Pakita Zabaleta, José M^a Rodríguez Ochoa, Roldán Jimeno, Itziar Alkorta, Andoni Esparza, José Luis Mendoza, Mikel Bujanda

1982-83an hasi ginen gure uhin eta irudiak Nafarroan zabaltzen. Gero eta entzule eta ikusle gehiago ditugu, baina dena ezkutupean egiten da, ez dago beste modurik. Bere garaian, EITB osoa legeztatzea eskatzen zuen Parlamentuak, baina hori ez da sekula gauzatu. Hor geratu zen. Askotan, gainera, Gobernuak ez du bete Parlamentuak eskatu duena, baina gure kasuan behintzat legeztapen hori ez zen etorri, eta hortxe segitzen dugu. Oztopatu ere egiten dute: zenbat eta oihartzun gehiago lortu gure aldetik, orduan eta oztopo gehiago jartzen dituzte, eta hor gabilitza, katua eta sagua bezala. Bestetik, potentzia bat izateko behar diren bitartekoak (argi indarra eta abar) ukatu egiten zaizkigu, beraz indar gutxiagorekin sartzen gara eta horrela besteak nagusitzen dira.

Nafarroan udal, kontzeju eta abarrek parte hartu zuten gure sarreran. Bakoitzak bere herri edo bailaran antena bat jarri zuen, eta horrela sartu ginen, jendearen edo herriaren borondatez, euskarazko komunikabide batzuk edukitzeko. Gure aldetik egin dena ere ezin da oso ozenki esan, zeren azken batean hemengo Administrazioaren beldur gaude, zer ez duten eginen gure kontra. *Euskalerrria Irratia* ere gure enbor beretik sortu zen. Talde bat sortu zen 83 inguruan irratia hemen sartzeko, ordura arte ez baitzen ezer euskaraz, eta horrela *Euskadi Irratia*

eta *Euskal Telebista* ikusi eta entzuteko. Gero, hortik sortu zen *Euskalerrria Irratia* emisio lokal bat bezala, gurekin batera.

Mikel Bujanda: Hein handi batean, esan behar dudana Joxemiel Bidadorrek egindakoaren gehigarria izan daiteke. Dena den, pare bat zehaztapen. Frekuentziaren gaia: *Euskalerrria Irratia*-k erabiltzen duen 91.4 hori ez da *Euskadi Irratia*-rena. Hori geuk dila hartu eta zein tarte egon zitekeen begiratzuz aukeratua da. Hasiera batean 91n jarri ginen, eta handik bizpahiru urtera 91.4ra desplazatu ginen, baina hori geure opzio bat izan zen.

Iruñeko Komunikabideak Sozietatea sortzeko unea 1984a izan zen. Lehenengo eginkizuna, Euskadi Irratia Iruñerrian entzunaraztea izan zen. Gero erabaki zen horrek hein batean premia komunikatibo larrienak asetzen bazituen ere, gehigarri lokal bat behar zela, eta beste arrazoi asko ere bazeuden hemendik bertatik eginiko irrati lokal bezala konfiguratzeko. Orduan, *Euskadi Irratia* hartu eta zabaltze lanarekin hasi ginen, eta gero, horren barruan, deskonexio lokalak, saio lokalak egiten. Gaur egun dauzkagu euskaldunon komunitate osoa hartzen duen *Euskadi Irratia*-ren programazio generikoa gehi komunikazio lokala, *Euskalerrria Irratia*-k egina. Irratien historian ez da gauza berria, irrati lokalaren eta sare zabalagoaren arteko joko hori askotan ematen delako.

Euskararen Legeak esaten duena ez da gauzatu oro har komunikabideekin, baina batez ere irratiekin. Legean aipatzen dira Nafarroako Gobernuak kudeatuko lituzkeen prentsa, irrati eta telebista, eta ongi jakina den bezala, ez dago Nafarroako Gobernuak kudeatzen duen prentsarik, irratirik, ez telebistarik, eta ezta ere garai batean izandako aldizkaririk. Kontu hori Foru Hobekuntzarekin lotuta dago, bere 55. artikulua esaten duenarekin. Hor esaten da Nafarroari dagokiola irrati, telebistaren eta prentsaren eraentza edo erregimen juridikoa, horren garapen legislatiboa egitea. Artikulu horrek, bere hirugarren zatian, esaten du Nafarroak bere prentsa, irrati eta telebista arautu, sortu eta antola ditzakeela. Nafarroako Gobernuak Foru Hobekuntzaren bitartez badu hori egiteko ahalmena eta eskumena. Miguel Sanz presidenteak eginiko sarrera edo hitzaurre bat topatu dut, eta hor esaten du erregimen forala dela historia luzeko herri honen identitate zeinu argiena, erregimen forala eta bere ordenamendu juridiko-politiko propioa. Beraz, identitatearen zeinu nagusia erregimen forala baldin bada, behintzat hedabideen arlo honetan eskumenak izanik eta eskumen horiek dakarten posibilitatea

ez erabiltzeak utzikeria erakusten du, eta beraz identitate zeinu horien arteko bat utzikeria bera ote den planteatzeko bide ematen da.

Esan bezala, Nafarroako Gobernuak ez du prentsarik sortu, eta ziur aski beharrik ere ez du sekula antzeman. Telebista eta irratiari dagokienez, erakunde bat sortu zen, *Entea*, prehistorian geratzen ari dena, baina gogoratu beharra dagoena. Zuzendari nagusi bat ere izendatu zen, eta estudio bat egin zuten irrati eta telebista publiko forala zer izan zitekeen edo nondik nora joan ote zitekeen aztertzeko (*Informe Coratel*, 1988ko abuztuan egina). Irratiaren zatiari izena ere eman zioten: *Onda navarra*. Hau oso lotuta zegoen telebista publiko foralaren proiektu bati. Proiektu faraoniko bat egin zuten. Coratel informean, irratiaren atala begiratze hutsa nahikoa da ikusteko zein planteamendurekin egin zituzten hasierako inbertsioak 88ko irratirako: 175 milioi pezeta (milioi bat euro), eta 40 pertsonako plantila bat planteatzen zuen, eta urteoroko esplotazio gastu arruntak 40 milioitan jartzen zituen. Hori irratirako. Pentsa, hortaz, telebistarako zer esanen zuen. Beraz, informea bera ezagutu orduko desistitu egin zuten gisa honetako erakunde faraoniko bat martxan jartzeko asmo horretatik. Enteak zenbait urtetan lozorroan iraun zuen, halako batean formalki desegin zen arte, baina egindako bakarra hau izan zen, 1988koa. Beraz, Nafarroako Administrazioak bazuen ahalmen bat Foru Hobekuntzaren bitartez, bere isla ere baduena: Euskararen Legean oraindik ere aipatzen dira Nafarroako Administrazioak gestionaturiko irrati edo telebista publikoak, baina ez da gauzatu.

Onda Navarra Irrati horren proiektuan ez da aipatzen euskaraz izanen ote zen. Bakarrik aipatzen zuen bi irrati programa diferente izanen zirela. Euskararen kontuaz pentsatzen ari ote ziren? Behintzat posibilitatea hortxe zegoen. Ez zen egin, inondik ere, proiektu honen defentsa sutsuegirik. Guk behintzat ez genuen egin, une horretan gure egitura antolatzen eta gure asmo handiekin genbiltzalako, eta gisa honetako proiektu bat geuretzako kompetentzia handi eta zuzenegia bezala ikusten genuelako, eta beraz bere mementoan behintzat poza hartu genuen ikusi genuenean hau ez zela aurrera aterako.

Baina, azken batean, kompetentziak, eskumenak eta erregimen foralaz horrenbesteko harrotasunez hitz egiten duen Administrazio foral batentzat, hutsune eta akatsa da gisa honetako erakunde bat ez garatu eta gauzatzea. Eta gaia gaitz erdi litzateke, baldin eta Foru Hobekuntzak edo Euskararen Legeak ematen duen beste posibilitatea behar bezala erabili izan balitz. Foru Hobekuntzako 55. artikulura itzuliz, azken batean,

prentsa, irrati eta telebistaren eraentza edo erregimen juridikoa eta garapen legislatiboa egitea aldarrikatzen du.

Zehazki irratiaren kasuan, Estaturako Plan Teknikoak zehazten zizkion Nafarroari frekuentzien banaketak, eta banaketa hori bi alditan egin da: bata 1990ean, eta bestea 1998an. 90eko hartan, eta aurretik ere, lehiaketa konbokatzeke zailtasunak egon ziren, Nafarroako Gobernuak ez baitzuen interes handiegirik erakusten. Gogoan daukat besteak beste garai hartan Euskadiko Ezkerrako Ramon Arozamenak eginiko interpelazio bat. Hura ere mugitu behar izan zen, eta azkenean atera zen konkurtsoa. Hor ere ezetza eman zioten *Euskalerrria Irratia*-ren proiektuari. Hautatu zituztenak Iruñako kontzesioen irabazle izateko, *Radio Blanca* eta *Compañía Navarra de Radiodifusión* izan ziren. Lan polit bat izan liteke kontzesio horiei arrastoa jarraitzea. *Radio Blanca*-ren kasuan, berehala sartu zen konkurtsoan kontzesioa lortu ez zuen beste enpresa bat, *Uniprex*. *Onda Cero* jarri zuten martxan, hor izan zen hasieratik prozesuaren trafikoa izan litekeena, *Compañía Navarra de Radiodifusión*-en lizentziaren bitartez zer entzun den, zer ez... Horiekin zer gertatu den lerroz lerro aztertzea oso argigarria izanen zen. Funtsean, geure ikuspegitik, ustekabe handia izan zen 90eko hura.

Nafarroako Gobernuak eskaini duen bigarren aukera, Plan Teknikoaren anpliazioaren bitartez etorri zen. Euskararen Batzorde Aholku Emaileak eskabide bat egin zuen, eta bazirudien une batzuetan behintzat hitza emana zigutela Iruñako frekuentzietako bat euskaraz ariko zen irrati batendako izanen zela, modu horretan ziurtatzeko gutxienik egon zedila hiriburuan gisa horretako ezaugarriak izanen zituen irrati bat. Ez dakit historia xehean sartzeari merezi duen. Alderdi Sozialistako kide batek hitza irentsi zuen, eta azkenean ez zen izan deialdi bereziturik, baizik denak zaku berean. Honek Euskararen Batzorde Aholku Emaileko kide gehienen dimisioa ekarri zuen, beste gauza askoren artean. Lehiaketa hura 1998an egin eta, oso garbi, irabazle geu izan ginen, *Euskalerrria Irratia*-ren proiektua. Iruzur guztiz nabarmen bat eman zen, Nafarroako Legebiltzarra mintzatu zen, eta 98ko udaberrian sekula eman den diktamenik sendo eta argiena eman zuen, esanez irregularitate handiak egon zirela prozesu horretan eta emaitza eta erabakia alde aurretik hartuak zeudela, eta besteak beste arduradun zen kontseilariaren kargugabetzea eskatu zuen. Handik bi hilabetera hauteskundeak etorri ziren eta UPNk irabazi zituen, aise gainera, eta kontseilari horrek bere postuan jarraitu zuen. Hor ere banaketa egin eta azkenean kontzesioak *Opus Dei*-ren unibertsitatearendako bat, *Net 21*-i

bestea. Unibertsitatearen irratiaren zerbait euskaraz egin izan dela badakigu, baina ez dugu jarraipen sistematikorik, eta *Net 21*-ena ere ez.

Oro har, hemen baloratzeko egon daitekeena da Nafarroako Gobernuak bere gaitasun horietatik egin duen erabilera, hau da, bere irratiaren erregimen juridikoa arautu eta legeztatu, eta egin diren banaketa horiek zer ekarri dioten Nafarroako edo Iruñerriko panorama informatiboari. Bai 90eko bai 98ko banaketetan lizentzia edo kontzesioa lortu zuten irrati horiek zertan aberastu duten lehenagotik zegoen eskaintza.

Beste modu batera ere egin liteke azterketa: une honetako azterketa sinkroniko bat ere egin liteke. Iruñeko dialean ibilaldi bat egin eta zer adi litekeen irrati publiko eta pribatuetan.

91n hasitako legegintzaldian, Juan Cruz Alli presidente zelarik, erantzun ziguten ez zela posible irrati publiko baten desafekzioa, eta beste. Azken batean, horiek guztiak aukera galduak izan dira. Bidadorrek esan duena: azken batean, Administrazioaren aldetik eman den interbentzioa dirulaguntzen eskaintza egitera mugatu da, euskarazko saioak egiteagatik. Hasierako urte haietan, Hizkuntza Politikako Zuzendaritzatik egiten zen diru publiko laguntzen eskaintza erabili gabe gelditzen zen. Eskaintza handiagoa zen demanda baino. Eta, hasieratik beretik, irrati konbentzionalek (*COPE*, *Cadena Ser* eta horiek) kontsideratzen zuten euren programazio erdaldunetan euskarazko tarteak sartzeak kalte gehiago egiten ziola, etor zitezkeen dirulaguntza horiek zekarten mesedea baino. Ez zietela kompensatzen. Beraz, ez du eragin mesedegarririk izan euskararen presentzia irrati horietan gradualki handitzeko, eta hortik atera daitekeen ondorioa da irrati tipo horrendako, edo geurea bezalako egoera soziolinguistiko batean publiko maioritarioari begira lanean ari den irrati batean, ez dela posible euskararen erabilpen partzial sistematikorik. *“El euskera es un engorro”*, zioen batek. Kasu horretan, euskararen presentzia txiki hori ere estorbo bihurtzen zen, jendea uxatzen zielako, diru gutxi zelako... Azken batean, irrati konbentzional horietan ikusten da dirulaguntza horren politikak ez duela eragin positiborik izan.

Urteekin, espresuki eta propio euskarazko komunikabide izateko eta beren zerbitzuak euskara hutsez eskaintzeko medioak sortu dira, eta medio hauek izan dira dirulaguntza horien

mesedea hartu dutenak. Nik uste dut zalantzarik ez dela laguntza horien bidezko interbentzioa mesedegarri gertatu dela. Baina ez dut uste Euskararen Legeak egiten zuen prebisioa hori zenik. Dirulaguntza horiek aprobetxatzeko, espresuki euskara hutsezko komunikabideak sortu behar izan ziren, edo alderantziz: euskara hutsez aritzeko bokazioarekin sorturiko ekimenak izan ziren dirulaguntza horien eskaintzaz baliatzen jakin zutenak.

Euskalerrria Irratia-ren perspektiba honetara etorriz, xehetasunetan asko sartu gabe, bere umiltasunean balio historikoa hartzen ari den agiri bat ekarri dut: 1985eko maiatzaren 24an Nafar Diputazioko Erregistroan sarturiko eskabide bat, Iruñeko Komunikabideak Sozietatearen izenean, Miguel Javier Urmeneta jauna zenak izenpetua, lizentzia bat eskatzen. Erdaraz dago, eta honela dio: *“La sociedad ‘Iruñeko Komunikabideak’ fue creada a los fines de instalación y explotación de emisoras de radio, televisión y cualesquiera otros medios audiovisuales, con especial dedicación al desarrollo y promoción del euskara. Que al objeto de dar cumplimiento a los fines sociales, es deseo de la Sociedad a la que represento obtener la correspondiente licencia de emisión en onda métrica con modulación de frecuencia. Que conforme al artículo 55 de la Ley sobre Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra corresponde a éste la ejecución del régimen de radiodifusión dentro de su territorio, pendiente de transferencia de competencias que en esta materia se realice y su normativa correspondiente”*. Testimonio interesgarri eta polita da.

85etik Nafarroako Gobernuan atean joka, abiatu zen *Euskalerrria Irratia*-ren legeztatze prozesua, eta oraindik ere ez da burutu. Gutxitan topa liteke horren legeztatze prozesu luzea. Dirulaguntzen aldetik, hedabideetan euskara erabiltzeko deialdietan *Euskalerrria Irratia*-k atea itxita izan du, baina leihoz zirikitu bat zabalik. Atea itxita esaten dut, baldintza gisa kontzesioa eskatu izan delako urte askotan komunikabideetako dirulaguntza horiek eskuratu ahal izateko, eta, aldiz, dirulaguntza horiek saihetseko leihotik, jardura kulturaletarako laguntzetatik lortu ahal izan ditugu urtetan.

Aurtengo deialdiari dagokionez, oraindik zain gaude, erresoluzioa oraindik ez da atera, eta ziuurrenik San Silbestre egunarekin batera hartuko da erabakia¹. Deialdia benetan xelebrea izan zen. Azaroaren 20an atera zen, eta orain erlojupean

1. Euskalerrria Irratia dirulaguntza publikorik gabe utzi zuen Nafarroako Gobernuak 2002ko abenduaren 31n, Batzorde Teknikoak horrela erabakita, dirulaguntzak lortu ahal izateko baldintza (kontzesioa edukitzearena) betetzen ez zuela argudiatuz. Epaibideetan dago orain auzia.

eta presionatzen ari dira, lasterka eta presaka. *Euskalerria Irratia*-k, nahiz jakin deialdiaren oinarriak eta hor eskatzen diren baldintzak diskriminatzaileak direla, konkurritu egin du, gure proposamen eta eskaria egin ditugu. Nik konfiantza dut Batzorde Teknikoak onartutzat emanen duela gure eskaria.

Azken batean, zer ekarri dio legeriak edo Administrazioaren jokamoldeak *Euskalerria Irratia*-ri? Nik uste dut, hein handi batean, balizko garapen bat oztopatu duela. Batetik inseguritate juridikoa izan dugu urtetan, eta horri gehitu urritasun ekonomikoa. Desafioari aurre egiten jakin dugu, baina gero, behin hori finkaturik, bigarren fase batera, bizkortzera, anpliatzera, berritzera iritsita beharko genuke, eta iruditzen zait oraindik lehendabiziko faseari dagokion probisionalitate edo prekarietate horretan gaudela, eta nik uste dut egoera honetan eragin handia duela Administrazioak izandako jokabideak.

Joxemiel Bidador: Frekuentzien asuntuan ados nago zurekin, agian hanka sartu dut espresatzeko moduan. Baina zehazki esan nahi nuena da momentu honetan Iruñerriko euskaldunok ez dugula irratia bat edo beste aukeratzeko aukerarik. Ordutegiaren arabera, derrigorrean bata edo bestea entzun behar dugu. Hori da kontua.

Bestetik, euskara molestagarria dela aipatu duzu. Hori aski argi ikusten da egunkariekin. Momentu honetan, esaterako, *Diario de Noticias* euskarazko orrialde batzuk ateratzen ari da. Ez dakit trikimailu komertziala den edo enpresaren benetako asmoa, baina, nire ustez, ez dute ezertarako balio. Hor ikusten da erdarazko hedabide batean euskara molestagarria dela. Hori da behintzat nik azken boladan daukadan inpresioa. Orrialde horiek hor geratzen dira, inork ez ditu irakurtzen.

Reyes Ilintxeta: Galdera asko egin daitezke: nork irakurtzen ditu orrialde solte horiek, *Diario de Noticias* zein beste aldizkarietakoak? Zer gertatzen da erdal telebistetako euskarazko tartetxoekin? Hori ere gogoetarako gaia da. Hor ikusten da helburu falta ikaragarria dagoela. Komunikabide horietan ez dakite oso ongi zer egin euskararekin. Galeriari begira antolatzen dute saio edo orrialde bat, ongi gelditzeko edo dirulaguntzak eskuratzeko. Dirulaguntzak, duela zenbait urte, eskatu gabe gelditzen ziren neurri batean. Gero euskal hedabideak horietatik onura eta atarramendua ateratzen hasi ziren, baina azken boladan horri ere buelta eman diote Gobernutik, eta orain, esate baterako, atarramendu handiena ateratzen

hasi direnak hain zuzen ere erdal hedabide batzuk dira. Esate baterako, *Diario de Navarra*-ren orrialdearekin gertatzen ari dena da esanguratsuena. Edota aipatutako bi erdal telebista horiekin gertatzen dena. Erdal hedabideek jasotzen dute dirulaguntza hori, gero eta handiagoa. Proportzioak ere aldatu egin dituzte, oker ez banago behintzat.

Euskararen Legeak komunikabideen inguruan dioena asko da eta ezer ez. Azken finean, agintarien esku gelditzen da zer egin euskararekin: sustatu edo ez, nola sustatu... Une honetan euskara ez da Nafarroaren nortasunaren ikur bat, eta ez dute komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko batere beharrik sentitzen. Orain dirulaguntza batzuk banatzen dituzte. Irizpideak ere gero eta hertsiagoak dira. Aurten agian *Euskalerria Irratia* kanpo geldituko da, *Nabarra* aldizkaria kanpo geldituko da, iaz *Nafarkaria* kanpo gelditu zen bezala.

Dirulaguntzak banatu eta ezer ez gehiago egin, hori da ikusten dena. Eta, bien bitartean, euskal komunikabideak Nafarroan izugarritzko prekarietate egoeran daude. Orain, agian, izan daiteke momentu egokia gogoeta txiki bat egiteko, eta pentsatzeko zer diren komunikabideak eta zer behar duen euskarak. Euskarak komunikabideak behar ditu, zalantzarik gabe, fiktizioak ez garela ikusteko eta erakusteko, eta komunitatea trinkotu eta geure informazioa zabaltzeko. Inoiz baino beharrezkoagoak dira euskal hedabideak. Eta inoiz baino prekarietate egoera handiagoan gaude.

Ikaragarria izanen zen orain ikustea zer-nolako aurrekontuak dituzten Nafarroako euskal irratiek, esate baterako, eta nolako baldintzetan bizi diren: esatari bakarra kasu aunitzetan, soldata miserable batekin, ordu asko sartuta, isolatuta, eta besteen dependiente. Interesgarria izanen zen ere jakitea zer-nolako baldintzetan lan egiten duten aldizkari horietan. Nahiz eta bitarteko askotxo izan, ikusi egin beharko litzateke benetako errealitatea zein den, eta bide honetatik segituz gero zenbat denborarako izan dezaketen bizia. Zeren ematen baitu agintariak ez dutela gure kontra aurrez aurre ezer egin, baina estutze ekonomikoa gero eta larriagoa da, eta gogoratu behar dugu zein mendetan eta zer-nolako momentutan bizi garen: orain berrikuntza teknologikoak behar ditugu bizitzeko, eta hauek gero eta garestiagoak dira. Horretarako dirua behar da. Haiek oso ongi dakite. Guk ere bai. Alde horretatik, gero eta larriagoa da komunikabide hauen egoera.

Honek, besteak beste, langileen ezegonkortasuna dakar. Toki guztietan bezala, langile espezializatuak eta esperientziadunak behar dira. A ereduan probisionalitatea baldin badago, zer esanik ez euskal komunikabideetan.

Ez gara, edo ez dugu izan nahi, beti "besteak", edo "los otros", Amenabarren pelikulan bezala. Gu gara, gu hemen gaude, gu hemen bizi gara, eta gure komunikabideak behar ditugu. Lehendabizi, ezagutu dezagun benetako egoera, eta ea zer proposatzen dugun edo zer bururatzen zaigun aurrera ateratzeko.

Xabier Erize: Lehenengo eta behin, eskerrik asko zuen lanagatik. Hemen zaudetela aprobetxatuz, eskerrak eman nahi dizkizuet. Normalean zuekin esnatzen naiz goizez, eta zuekin oheratzen naiz...

Euskarazko komunikabideen inguruan, zenbait kezka ditut. Alde batetik, izatea bera. Argi dago lege arazoak, diru arazoak eta abar daudela. Egoera oso argi aurkeztu da. Beste kezka bat ikusten dut kalitatearen inguruan: kalitatea entzule bezala, edo euskaldun bezala. Ez bakarrik komunikabideetan, baizik eta mezuetan eta diskurtsoan ere bai. Kalitate teknikoa, profesionala eta euskara mailakoa. Kalitate profesionalari dagokionez, batzuetan egonkortasuna botatzen dut faltan. Betiko hizlariak aurkitzen ditudanean oso gustura sentitzen naiz. Hor egonkortasun bat ikusten dut, sendotasuna eta profesionaltasuna goraka doala. Eta, alderantziz, ahots berriak entzuten ditudanean, oso gazteak, eta oso profesionalak ez direnak, ez naiz oso gustura sentitzen. Euskara mailari dagokionez, iruditzen zait komunikabideetako langileek euskara erdua eskaini behar dutela, zeren guk geure euskara neurri batean komunikabideetatik elikatzen dugu. Euskara ondo erabiltzea oso inportantea da. Ez hainbeste beste alor batzuetan, baina komunikabideetan bai. Eta hori lotuta dago Nafarroako arazo batekin: jatorriz euskara ama hizkuntza duten edo jatorriz erdaldunak direnen proportzioekin. Alde batetik zorionez, baina kasu honetan zoritxarrez, euskaldun berrien pisua gehiegizkoa da Nafarroan.

Gogoeta egin nahiko nuke Nafarroari buruzko informazioaz. Euskarazko komunikabideen bitartez bakarrik ongi informatuta egongo al ginateke Nafarroaz edo Nafarroan? Irratiz beharbada bai, prentsaz ez. Ni *Euskaldunon Egunkaria*-ren harpideduna naiz, eta erosten dudana prentsa bakarra hori da. Gero, saiatzen naiz gainerakoak ere begiratzen. Baina *Egunkaria*-ren bitartez bakarrik gaizki informatuta sentitzen naiz Nafarroaz.

Beste kontu bat da nire ustez askoz ere gehiago baloratu beharko genituzkeela iragarkiak paratzen dituzten enpresak. Nik uste dut egiten duten ekarpena oso handia dela, eta gero nola baloratu? Agian, haiei erostetik hasiz. Garrantzi handia eman behar zaie.

Marketina asko aipatu da, baina modu serioago batean hartuta, marketina ez da saltzea bakarrik, edo hitz politikak erabiltzea, baizik eta hasieran jendearen behar edo nahiak zein diren aztertzea, nahi horiei egokitzen zaizkien produktuak asmatzea, produkzio departamentuari ideia ematea, eta, azkenean, salmenta edo publizitate kanpainak sortzea. Baina jendearen nahiak kontuan hartzea eta produktu egokiak asmatzea, hori ere marketin sailen egitekoa da.

José M^a Rodríguez Ochoa: Apunte txiki bat, *Euskalerria Irratia*-ri buruzko historia ofiziala osatzeko. Esan nahiko nuke hiruko gobernua finkatuta zeukala ofizialtasuna deklaratzeko data konkretua. Presidentzia departamentuan hartuta zegoen horretarako data konkretua.

Iñaki Azkona: Ni ez nago oso konforme eman duzuen irudi beltz horrekin. Uste dut, nahiz eta orain dauden errealtate asko prekarioak izan, inoiz baino gauza gehiago daudela. Nafarroan komunikabideetan euskara inoiz ez da hainbeste erabili. Dena oso doinu beltz eta tristean aipatu duzu, Bingen, eta nik ez dut uste horrela denik. Euskal Telebistaren antenak herriak jarri izana, adibidez, oso gauza positiboa da. ETBren bi kateak izugarrizko zeregina betetzen ari dira Nafarroan, eta ez euskararen mailan bakarrik, baizik eta maila politikoan eta informazio objektiboaren lehia horretan ere bai. Eta jendeak horrela hartzen ditu gainera.

Nafarroako informazioari buruz, nik uste dut *Egunkaria*-k erreferentzia puntu bat duela, Usurbil-Tolosa-Oiartzun triangulua, eta ez dela handik ateratzen. Nik uste dut "gipuzkoanitis"-ak jota dagoela eta agian horregatik ez duela islatzen Nafarroako errealtatea. Horrela ulertu behar da *Nafarkaria*-ren desagerpena ere, zeren ez da desagertu Gobernuak dirulaguntza kendu diolako bakarrik, baizik eta behar zen garaian ez zutelako domizilioa Nafarroan jarri, eta ez zelako behar zen adoreaekin defenditu. Gainera, politikoki lerratuegia dago, beraz oraindik konplikatuagoa da.

José Luis Mendoza: Historiarako apunte batzuk. 1990ean, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren helburua eskualdeko irratia eta prentsak sortzea zen, telebistarena nahiko urrun geratzen zelako.

Bigarrenik, ETBren antenei dagokienez, gehienak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin jarri ziren, eta kontseilariak jakinda. Herriak aste kultural bat antolatzekeo dirua eskatu zuen, baina gero aste kultural hori ez zen egin, eta aste horretan bertan jarrita zeuden antenak, Aladino Colín kontseilariaren baimenaz. Ikusi behar da zein zen kontseilari horren egoera partiduaren barruan. Guri esaten zigun txostenak pasatzeko, baina mesedez partidua ez enteratzeko, bestela akabo.

Mikel Bujanda: Entzuleei buruz, *Euskalerrria Irratia*-k eguneroko entzule gisa 6.000 dauzka, eta esporadikoak 9.000. Eta, aurrekotik hona, entzule finkoak galdu egin dira.

Publizitatearen aldetik, publizitatea gehitzen doa. Ikaragarri kostatzen bide horretan sartzea, eta orain pauso gehiago eman behar ditugu.

Dirulaguntzak emateko orduan, Administrazioak adiskide dituen komunikabideak saritzeko egiten duena, eta hein handi batean batzuk behintzat modu batean sostenitzeko, publizitatea da. *Euskalerrria Irratia*-k boikot sistematiko ia totala du. Iruñeko Udaletik, esate baterako, orain bi urtera arte, euskaraz edo publiko euskaldunari destinatutako aktibitateak iragartzen ziren, eta Udalak anuntzio batzuk ordaintzen zituen. Hori bakarrik. Beste sailetatik ezer ez. Baina hori ere moztu zen.

Gehienbat erdaraz den medio batean euskararen erabilpen partzelatuak zein ondorio dakar? Nik bereizketa bat egingo nuke ikus-entzunezkoetan, eta batez ere irrati-tietan azken honetan ez dago simultaneitate posible: edo euskaraz ari zara, edo gaztelaniaz ari zara. Hor bai ikusten dudala bateraezintasuna ematen dela. Ez da posible irrati elebidunik, baldin eta euskarari erabilpen funtzional bat eman nahi bazaio hizkuntzak bere funtzioa bete dezan, eta ez erabilpen sinboliko edo apaingarria. Hedabide idatzietan ez dut uste hain bateraezintasun argia ematen denik. Egia da zenbait hedabidetan agertzen diren informazioak jada ikusi direla besteetan, baina hori erdarazko hedabideetan ere gertatzen da. Informazio horiek behin baino gehiagotan publikatuta ikusteak nobedadea kentzen dio, baina ziurtasuna ematen dio.

Bingen Amadoz: Sentitzen dut lehen tonu iluna agertu baldin badut, ez nuen hori agertu nahi. Egia da egoera den bezala dela, baina negar egitearen kontra naiz erabat, horrela ez baitugu ezer egiten. Baina, bestalde, uste dut ezin dugula dagoena ezkutatu. Badira hainbat faktore gauzak aurrera joan direla esateko,

baikor egoteko motibazioak ere aski dira, baina oso une txarra bizi dugu, eta agintariekin daukagun erronka handia da. Hori da nik nabarmendu nahiko nukeena. Ez gizarteak erakusten duen jarrera, zeren uste dut gizarteak oro har nahiko jarrera positiboa erakutsi duela, eta gero eta positiboagoa gainera. Baina panorama nahiko beltza dagoela ezin da ezkutatu, eta uste dut hori esan beharra dagoela, ez negar egiteko, baizik eta erreakzioa sortzeko. Bada garaia esnatzeko eta erantzuna emateko, eta uste dut hemen ez dagoela erantzunik, batez ere kultura mailan.

Hein handi batean subentzioez ari dira bizitzen zenbait komunikabide, batez ere txikiak. Azken lehiaketak kanpoan utzi ditu inportanteenak: *Nabarra*, *Euskalerrria Irratia*, *Egunkaria*... Irrati erdaldunetan hasieran izan ziren euskarazko saioak, baina pixkanaka denak desagertu dira. Irrati horietan ere saiatu ziren euskara saltzen, eta hasieran saldu zen. Gero, saiatu ziren dirulaguntza horien bitartez euskarazko saioak egiten, nonbait ez zitzairen ongi atera, murriztu egin zaie programazio lokala, eta ez dute sartzeko tokirik. Bestetik, interesik ere ez zuten. Komertzialak direlako bakarrik saldu nahi zuten. Hori dena desagertu egin da. Uste dut frogatu dela irrati elebidunek ez dutela arrakasta handirik lortzen.

Entzuleei dagokienez, gure kasuan nabarmenki gora joan dira. Ez dizkigute datuak eman, eta nik uste horretan beldurra dagoela. Hain dira onak datuak, beldurra ematen diela gure goikoei ematea! Gobernuaren erantzunaren beldur gaude, gauzak ongi doazkigula jakiten baldin badute zigorra etorriko zaigulako. Zer etorri zaigu irakaskuntza mailan? Gauzak gero eta hobeto joan dira. Hemen, duela hogeita bost urte ez zegoen ezer, eta begira orain. Eta zer etorri da gero? Alde horretatik, euskara zenbat eta hobeto joan, orduan eta erantzun gogorragoak jasotzen dira Gobernuaren aldetik, hain zuzen ere euskararen kontrakoak direlako, ez zaielako interesatzen euskara aurrera joatea.

Nire iritzian, Euskararen Legeak hiru alor garatu behar zituen: irakaskuntza, Administrazioa eta komunikabideak. Azken hauetan apenas egin da ezer: dirulaguntzen bitartez zerbait lagundu, eta ez besterik, oro har. Administrazioan birziklaketa egin dira, eta horrek arrakasta izan duen neurrian atzera joan dira. Eta irakaskuntzan askoz ere arrakasta gehiago izan du euskarak, eta eraso gogorragoa da. Ikusi Nafarroako Unibertsitate Publikoan zer ari den gertatzen, ez diote aurrera segitzen uzten. Hori oso garbi dago. Arrakasta daukagun heinean, besteen erasoak gogorragoak dira.

Nire hausnarketa da euskarak bereizi egiten gaituela, kulturalki desberdindu egiten gaituela, euskarak ez daukala antzekorik. Uniformizazio kultural eta politikoaren alde egiten dutenentzat kezkarri dela euskararen iraupena, eta are gehiago zabalkundea. Uste dut Nafarroako gizarteak oro har euskararen aldeko apustua egin duela hein handi batean, eta hori batez ere irakaskuntzan eman diren emaitzetan ikusten da (D ereduaren gorakada, eremu ez-euskaldunean A ereduak izan duen arrakasta), eta horrek asaldatu egin ditu gure agintariak.

Euskaraz hitz egiten duen jendearen ideologia oso ezberdina da. Euskaldun zaharren artean denetarik dago, baina euskarara hurbiltzen den jendea ideologikoki gero eta murriztagoa da, eskuinak oso jarrera bortitza hartu duelako, eta beraiengan sinesten dutenak ez dira hurbiltzen, eta gero eta gutxiago hurbilduko dira gainera. Alde horretatik arrisku handia ikusten dut euskararentzat, espektro politikoa murriztu egingo zaigulako. Eta hori ez zaio gertatu behar hizkuntzari, hizkuntza denona delako. Ez delako ideologia baten tresna, baizik eta denona.

Beraz, garbi dago erasoak azkenaldian ugaritu egin direla, eta uste dut erantzun beharra dagoela. Eta baita ere zenbait erakundek, guretzat oso inportanteak direnek, azkenaldian halako jarrera lotsati, apal eta ez-ausartia erakutsi dutela. Eta horrek ez du horrela izan behar. Euskaltzaindiaren eta Pegenauteren arteko sinadura lotsagarri hori nire ustez umilazio bat izan da Euskaltzaindiarentzat. Errespetu handia merezi dit erakunde horrek, baina uste dut ez duela merezi horrelako umilazio batetik pasatzea, eta euskal kulturak beste jarrera bat hartu beharko lukeela. Gure iraunkortasuna guk bermatu behar dugu eraso honen aurrean zerbait egiten, erantzuna ematen.